



ilustrazioa

LH 3 eta 4

Maria Markotegi Saria 2015

Errementaria eta deabruak

Aspaldi handian, Mantxako Tomelloson, izan zen Blas izeneko errementari bat, etxe atarian madariondo emankor bat zeukana. Gizon xelebrea zen, baina eskuzabala, eta bi erromes zarpozikin etorri ziren batean, atariko bankuan esertzera eta madari batzuk hartzera gonbidatu zituen. Haietako bat Done Petri zen, eta berehalakoan igo zen zuhaitzera ale ederrenak aukeratzera. Baina bestea Jesus bera zen, eta, esker onez, Blasek zer nahi, horixe eskatzeko esan zion.

—Eskaiok betiereko bizitza eta aintza —xuxurlatu zion Done Petrik, baina Blasek bestelako asmoak zituen.

—Bankuan eseri eta madariondora igotzen dena, bertan atxikia geratzea nahi dut, eta baita zaku honetan sartzen dena ere.

—Hi haiz hi, tontozoperoa. Betiereko bizitza eskura izan, eta halako xelebrequeriak eskatzea ere...

Bi erromesak alde egitearekin batera, zaldun aberats bat heldu zen abaila bizian. Errementariari zaldia ferrak aldatzeko eskatu zion, baina honek burdina falta zuela aitzakiatu zion.

—Ekar ezak ferra bat —esan zion zaldun zapuztuak, eta hura eskuratu zuelarik, bi adarretatik tiratu, eta burdina luzatzea lortu zuen.

—Ai, ni ere horrelakorik egiteko gai banintz —atera zitzaion Blasi.

—Erraza duk. Saldu iezadak arima eta horretarako dohaina emango diat.

—Deabrua ote zara ba?

—Satanas bera, eta arima saltzeko prest bahago, kontratu bat sinatzea baino ez daukak. Hi hil edo kontratua erre artean, burdina nahierara luzatu ahal izango duk.

Hala bada, errementariak sinatu egin zuen kontratu hura, eta hurrengo bi urteetan aberastu egin zen, izan ere burdina zati batekin nahi adina hesi, sarraila, ferra eta giltzarrapo egin baitzituen.

Patxi Zubizarreta

Hamar urteren buruan, goizaldean, deabru ttiki bat ate joka hasi zitzaion.

—Hire aldia iritsia duk. Hiltzeko ordua duk eta nik hire arima infernura eraman behar diat.

—Oraintxe noak, baina bitartean hartu atseden atariko bankuan —proposatu zion Blasek, eta, jakina, deabrua atxikia geratu zen eta, handik alde egitearen truke, hamar urteko bizialdia agindu zion errementariari.

Beste hamar urte igaro zirelarik, beste deabru bat agertu zen Blasenean.

—Hator, urde tontorrobiloa, eta jakin ezak inondik ere ez naizela hire banku horretan eseriko. Tira, zain naukak.

—Oraintxe noak, baina biderako madari parea hartu nahi nikek —proposatu zion Blasek, eta, jakina, deabruak trikimailuren bat espero zuelako, bera igo zen madari bila, eta bera geratu zen tinkatua; akaberan, honek ere hamar urteko bizialdia agindu zion.

Bigarren deabruak ere agindutako hamar urteak igaro zirelarik, Satanasek bera agertu zen Blasenean.

—Ene, ene, laguntzailerik gabe geratu ote zara ba, zuk zeuk etorri behar izateko?

—Hago ixilik eta irten hadi etxetik, bestela ateko katu zuloetik sartuko nauk. —Eta errementariak zuloaren bestaldean zakua kokatua zuenez, hantxe geratu zen atxikia Satanasek bera ere.

Errementariak, orduan, mailutzar bat hartu, eta bereak eta asto beltzarenak eman zizkion Satanasi, eta honek azkenean kontratuaren papera atera behar izan zuen. Blasek, ez bat eta ez bi, hura erre, eta deabruari heriosuhar eta kirats jario alde egiten utzi zion. Blas errementaria harrezkero Mantxako Tomelloson bizi da, izan ere deabruak ikara gorrian ditu eta Done Petrik ez dio barkatzen Jesusi betiereko bizitza eskatu ez izana.

Parte hartzaileak:

Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

Sailak:

Lehiaketak sail bakarra izanen du: ilustrazioa.

Kategoriak: Lehiaketak kategoria bakarra izanen du: LHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena.

Lanak aurkezteko epea:

Lanak aurkezteko epea 2015eko martxoaren 31n bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 32

31830 Lakuntza

T.: 948 464840

e-posta: euskara1@sakana-mank.com

Lanak aurkezteko modua:

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefona, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izenburua, saila eta kategoria.

Baldintzak:

- Haurrek Patxi Zubizarretak egokitutako **Errementaria eta deabruak** ipuina ilustratu beharko dute.
- Ilustrazioak A4 formatudun orrietan egin beharko dira. Margo mota eta teknika guztiak onartuko dira.
- Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bat aurkez dezake.

Sariak: Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira bi sari izanen dira.

1. SARIA : Pintura zorro osatu bat

2. SARIA : Pintura zorro osatu bat

Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

Argitalpena: Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

Epaimahaia: Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturaren nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egingen ditu. Aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.